

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresako funtsezko baliabideak hurrengoak dira:

Baliabide fisikoei begira, lokal handi bat beharko dugu, bertan gure ofizina zein janaria banatzeko tokia izateko, baita eta hau berotu eta kontserbatu ahal izateko mikrouhina eta hozkailua.



Janaria alde batetik bestera garraiatzeko furgoneta bat erosi egingo dugu, ahalik eta handien izango da janari gehiago eraman ahal izateko.



Eta baliabide fisikorik inportanteena, janaria, tabernek emango digutena eta guk tabernetatik jasoko duguna, gero gure lokalera eramateko eta bertan banatzeko etxegabekoei.

Baliabide intelektualei begira, ideiak aplikazioaren diseinua egiteko behar ditugu. Aplikazioaren izena (Donostrip) erregistratuta egon beharko da marken eta patenteen Europako merkataritza erregistroan.

Finantza-baliabideei buruz, hasierako kapitala tabernen kuota izango da, 100 eurokoa taberna bakoitza (100x100=10000€). Aurrerago, aplikazioak dirua emango du, baita eta iragarkiak ateratzen badira. Baita taxistek gure partez joan direnengatik diru bat emango digute, eta azkenik, nahi duenak donazioak egin ditzazkete.

Guk, enpresaren sortzaileak, giza baliabideen taldea osatuko dugu. Guk izango gara administrazio alorra eramango dugunak, eta produktuaren banaketak eramango

ditugunak. Aldi berean, enpresako kontabilitatean ibiliko gara.